

# Bonaparte printzearen nafar laguntzaile berriak: Jose Erasun

XABIER ERIZE ETXEGARAI\*

Artikulu hau egiteko aitzakia Tomas Otxandorenak (1997) argitaratu duen Jose Erasunen biografiak eman zidan, eta lerro hauek bertan esandakoa osatzera datoz nonbait, inoiz ez zuzentzera. Otxandorenak Jose Erasunen bizitzaren bi alderdi nabarmendu ditu: Saldiasko erretoretzan emandako 37 urteetako lanak eta, bereziki, bere euskaltzaletasuna. Nik orain arte ezezaguna zen hirugarren bat gehitu nahi nuke: Bonaparte printzearen laguntzailea izan zen Jose Erasun, Zugarramurdiko dotrinaren egilea, hain zuzen ere. Dotrina hau Nafarroako Artxibo Nagusian dago (Bonaparte fondoa, B-80 eskuizkribua) (ikus 1. eranskina) eta 239. zenbakia du Gonzalez Echegaray eta Arana Martijaren katalogoan (1989: 86). Argitaratua izan da (Pagola, zuz., 1994).

Jose Erasunekin batera Bonaparteren beste hamar laguntzailearen izen berriak aurkezten ditut eta, orobat, printzearen laguntzaileei buruzko azterketak euskararen orduko goera ikertzeko duen garrantzia erakutsiko dut.

## BONAPARTEREN LAGUNTZAILEAK ETA EUSKARAREN GIZARTE-EGOERA

Nafarroa Garaiko<sup>1</sup> euskararen historia soziolinguistikoz egin dudana ikerketaren (Erize 1997) atal bat Bonaparte printzearen nafar laguntzaileei buruzkoa da. Bonapartek lehentasunezko tokia du euskalaritza eta euskaltzaletasun modernoetan eta, aldi berean, gauza jakina da 1856 eta 1869 bitartean Euskal Herrira egin zituen bost bidaietan laguntzaile multzo handi batez baliatu zela argibideak bildu eta bere lanak aurrera ateratzeko. Nafarroan

\* Euskal Filologian doktorea.

1. Artikulua Nafarroa Garaia buruzkoa da. Hemendik aurrera "Nafarroa" bakarrik esango dut.

franko eta herri askotakoak ziren Bonaparteri euskararen berri eman zioten lagunak, gehienak euskaldunak ziren eta denen artean Nafarroako euskal barruti osoa gehi Iruñea estaltzen zuen pertsona hautatuen sare bat osatu zutela esan daiteke. Denen erdian Bruno Echenique urdazubiarra zegoen, bost itzulpenen egilea (Salaburu 1980 eta 1996) eta Nafarroako lanen koordinatzailea. Halaber, gainerako itzultzaileak ditugu, maiz apaizak edo maisuak, Bonapartek aurretik ezarritako testuak, dotrinak eta *Biblia*-ko zatiak batez ere, nork bere herriko euskarara itzultzen zituztenak. Beste batzuek, berriz, berariazko itzulpenik egin ez, baina euskal idazkiak eskuratu zituzten, edo lan-saio eta elkarriketak izan zituzten Bonaparterekin. Azkenik, nola edo halako albisteak helarazi zituztenak ditugu. Nolanahi ere, pertsona bat Bonaparteren laguntzailezat hartzeko baldintza printzearekiko harreman zuzena eduki izana edo berarentzat espresuki lan egin izana da.

Euskararen 1850-1870 hamarkadetako gizarte-egoera aztertzeko oso baliotsuak izan zaizkit Bonaparteren laguntzaileen lekukotasunak, “lekukotasun” hitzaren zentzurik zabalenean: beraiek adierazitako albisteak nahiz euren bizitza edota eginen bidez erakutsitako argibideak. Azterketaren emaitzak bost ataletan bildu ditut: (1) hizkuntzaren ezagutza; (2) hizkuntzarekiko jarrerak; (3) hizkuntzaren hautaketa; (4) hizkuntzaren erabilera; eta (5) hizkuntzaren egoera aldatzeko ekimenak. Oro har, eta bost puntuak banan-banan aurkeztu gabe, agertzen zaiguna euskararen aldeko mugimenduak sortu aurreko egoera da. Hizkuntzaren ikasketak bi ibilbide (Bourdieu eta Passeron 1970; Sanchez Carrionen 1987) egiten dituela gogoan hartuta –A ibilbidea: naturala, familia bidezkoa; B ibilbidea: eskola bidezkoa, kulturala–, Bonaparteren lankideen lekukotasunek Nafarroako euskara gehienbat A ibilbidera, ikasketa naturalaren zirkuitora mugatzen zela erakusten dute, B ibilbidea, zirkuito kulturala ia itxita zuen bitartean. Aldi berean, euskararen ibilbide naturala osorik eta indartsu zegoen toki askotan, baina higadura nabaria jasaten ari zen beste zenbaitetan, hegoaldeko eta ekialdeko eskualdeetan bereziki.

Egia da, bestalde, idatziz ere erabiltzen zela euskara Nafarroan, eta, besteak beste, Bonaparteren laguntzaileek bultzada ederra eman zioten euskara idatziari, printzeak berak 1868.ean Inchauspe kalonjeari eginiko eskutitzean aitortu zuenez: “Los in-folios y los in-4º que de él [Hegoaldeko goi nafarraz] poseo son más que suficientes para construir una pequeña Literatura religiosa, más rica que la suletina impresa, y casi tan abundante como la vizcaína” (Riezu 1958: 158).

Hizkuntzaren egoera aldatzeko ekimenak oso-oso urriak ziren orduan eta hor agertzen zaigu Jose Erasunen garrantzia, hiru bakarrik izan baitziren, nik dakidala, 1850-1860ko hamarraldietan Bonaparterekin lan egin eta gero, 1876 ondoko euskararen aldeko lanetan nabarmendu ziren lagunak: Bruno Echenique, Mariano Mendigacha eta, proposatzen dudanez, Jose Erasun. Gauzak, esan bezala, 1876. urtean hasi ziren aldatzen eta hor berriro Bonaparte printzea aurkitzen dugu, Arturo Campionekin eta *Revista Euskara*-rekin izan zuen lankidetzan ikus daitekeenez.

## BONAPARTEREN NAFAR LANKIDEEN IZEN BERRIAK

Bonaparteren lankideen lekukotasunen gainean lan egiteko, aurrena nor izan ziren ahalik eta zehazkien jakitea da, noski. Beren zerrenda ez dago

behin betiko itxita eta ikertzaileak gaiaz arduratzen hasi zirenetik –lehenengo zerrenda, oker ez banago, Julio Urquijorena da (1908: 216)–, guztiak azpimarratu dute hori osatzearen garrantzia. Lankide asko ezagunak dira, baina beste asko ez, ordea. Ezagutu ahal izan dudan neurrian, bost dira nafar laguntzaileen zerrendak proposatu dituzten egileak: Julio Urquijo (ibid.), Jorge Riezu (1958), Nikolas Alzola (1958-68), Jose Anjel Irigarai (1973) eta Jose Antonio Arana Martija (1992). Guztira, Bonaparteren nafar laguntzaileztat ziurtasunez jo daitezkeen hogeita bi izen agertzen dira zerrenda horietan, gehi beste lau, baina hauek egiazko lankidetzat jotzeko arrazoiak ez dira aski nire ustez.

Bonaparteren laguntzaile gehiago ezagutzeko bideak hiru dira nagusiki: jadanik argitaratuta dauden gainerako iturrietan agertzen diren izenen bilketa –begi-bistakoena, agian, Juan Cruz Elizalde zen (Gonzalez Echegaray eta Arana Martija 1989; Pagola et al. 1996, III)–, Bonaparteren fondoko eskuizkribuen miaketa eta artxibo lana. Horrela, han eta hemen erdietsitako datuak lotuz, orain arteko zerrendetan agertzen ez ziren edota ezagutzen ez ziren hamaika izen berri proposatzera iritsi naiz, baina, lan honen gaia Jose Erasun denez, gainerakoen justifikazioa beste baterako utzi dut, gauzak ez dira jendaurrean frogaturik gelditzen badakidan arren. Hona hemen hamaika lagunak taula batean bilduta:

Izen-deiturak	Herria	Lanbidea edo bestelako ezaugarriak
Juan Cruz Elizalde	Uritz	Maisua. Dotrinaren egilea
Jose Erasun	Zugarramurdi eta Saldias	Apaiza. Dotrinaren egilea
Miguel Garcia	Orontze eta Otsagabia	Apaiza
Martin Goyeneche	Elizondo	Apaiza
Antonio Irurita	Atarrabia	Udal idazkaria
Marcelino Juanco	Otsagabia	Apaiza
Miguel Jose Lacunza	Arakil-Uharte	Apaiza. Dotrinaren egilea
Jose Joaquin Ollo	Iruñea eta Hondarribia	Apaiza
Juan Pablo Ribed	Iruñea	Merkataria
Juan Andres Saralegui	Intza	Apaiza. Dotrinaren egilea
Esteban Zabalo	Etxarri-Aranatz	Apaiza. Dotrinaren egilea

Bonaparte printzearen laguntzaile berrien proposamena

## JOSE ERASUN, BONAPARTEREN LAGUNTZAILE

Zugarramurdiko dotrinak bere egilearen nortasunaz ematen digun argibide bakarra azalean dator: “Zugarramurdi, por uno de Saldias de Basaburua menor”, Bonaparteren letraz ziur aski. Eta beste esku batek hau gehitu zuen Zugarramurdi hitzaren ondoan lapitz berdez: “(autor?)”, eskuizkribuaren egilea ezezaguna zela nabarmendu nahian, nonbait. Dotrinaren testuak 46 orrialde ditu eta, oro har, letra txukun eta garbiaz idatzita dago, baina bere egileaz ez du deus ere gehitzen. Dotrina paperezko karpeta batean dago eta honek, idazmakinez idatzita, hau dio soilik: “&&Nº 80&&. &&&LENGUA EUSKARA&&&. Catecismo en vascuence, en el dialecto vulgar de Zugarramurdi”. Beraz, Zugarramurdiko dotrina saldiastar batek egin zela genekien bakarrik.

Irtenbidea Iruñeko Elizbarrutiko Artxiboko Zugarramurdiko 1857ko txostenak (Caja 413, Fajo 28) erakusten du. Txostenean herriko parrokoa Saldiasen jaiotako Jose Erasun izenekoa dela dio, Jose Erasunen beraren letra eta sinaduraz:

(...) los Sacerdotes adscritos á la Parroquia de Zugarramurdi son los siguientes.

(...)

Dn. José Erasun de edad de treinta y seis años, natural de Saldias, Diocesis de Pamplona; su carrera literaria tres años de Filosofía, uno de teología y dos de moral, cura Parroco es su cargo, lleba de residencia nueve años y medio. Sirvió ocho meses del primer año de su ordenacion, de Beneficiado en la villa de Santesteban.

Pamplona donde accidentalmente me hallo

19 de Junio de 1857

Excmo. Ylmo Sor.

José Erasun

Txosten honen letra, Jose Erasunena, eta Zugarramurdiko dotrinarena alderatuta, ia ziurtasun osoz esku berekoak direla esan daiteke (ikus eranskine-tan parrokiako txostenaren eta dotrinaren lehenengo orrialdeen kopiak).

Gainera, datuak –adina eta apaizgoan zeraman denbora– bat datoz Tomas Otxandorenak Jose Erasuni buruz emandako argibide biografiko nagusiekin: jaiotze data (1821) eta apaiztu zen urtea (1847). Are gehiago, Jose Erasunen biografian hutsune bat zegoen 1847ko apirilaren 6an apaiztu zenetik 1857ko uztailearen 25ean Saldiasko erretoregoa hartu zuen arte, eta urte horiek dira, hain zuzen ere, oraingo txostenak argitzen dituenak.

Bestalde, beretsuak dira Zugarramurdiko dotrinaren grafien sistema eta Jose Erasunek proposatutako eta erabilitako eredua (Erasun 1880 eta 1881; Otxandorena 1997), gaztelaniazkoaren antzekoa.

Laburbilduz, Bonaparte printzea gaur egungo euskalaritzaren eta euskaltzaletasunaren abiaburuan dago. Berak 1850-1860 hamarkadetako belaunaldiarekin lan egin zuen batik bat, baina hurrengo belaunaldikoek oso gogoan izan zituzten Bonaparteren ekarpenak. Nafarroan eten nabaria izan zen bi belaunaldien artean, baina hala ere, hiru lagun ditugu hasieran Bonaparterekin eta gero euskararen aldeko mugimendu berriekin lan egin zutenak: Bruno Echenique, Mariano Mendigacha, jadanik ezagunak zirenak, eta Jose Erasun, oraingo artikuluan erakusten denez.

## BIBLIOGRAFÍA

- ALZOLA, Nikolas (1958a). El traductor del «Benedicite» al vascuence de Bera, para el príncipe Bonaparte. *BAP* XIV, 465-7.
- (1958b). Una carta de D. Pedro José Samper, Vicario de Jaurrieta, dirigida al Príncipe Luis Luciano Bonaparte. *Príncipe de Viana* XIX, 165-6.
- (1963). Echenique. *BAP* XIX, 282-4.
- (1965). Pedro Prudencio de Hualde Mayo. *BAP* XXI, 91-2.
- (1967a). Elizondoko Damaso Etxeberria. *Egan* XXVI, 106-7.
- (1967b). Los «Erreguzko kantatxoak» a San Francisco Javier, de Dámaso de Echeverría. *BAP* XXIII, 241-2.
- (1968a). Dámaso de Echeverría, de Elizondo. *BAP* XXIV, 252-3.
- (1968b). Sobre la carta de Samper a Bonaparte. *BAP* XXIV, 102.
- ARANA MARTIJA, Jose Antonio (1992). Bonaparte, Europako dialektologia eta euskalkiak. In *Nazioarteko Dialektologia Biltzarra. Agiriak*. Euskaltzaindia, Iker-7, 3-15. Bilbo.

- BOURDIEU, Pierre eta PASSERON, Jean Claude (1970). *La reproduction. Éléments pour une théorie du système d'enseignement*. Paris: Les Éditions de Minuit.
- ERASUN, Jose (1880). Orreaga. Versión al dialecto vulgar de Saldías, valle de Basaburua menor (Navarra). In *Orreaga*, A. Campion, 61-64. Iruñea: Imprenta y librería de Joaquín Lorda.
- (1881). [Ortografía euskara.-Carta de D. José Erasun]. *Revista Euskara* IV, 216-9.
- ERIZE, Xabier (1997). *Nafarroako Euskararen Historia Soziolinguistikoa (1863-1936). Soziolinguistika Historikoa eta Hizkuntza Gutxituen Bizitza*. Iruñea: Nafarroako Gobernu (prestatzen).
- GONZALEZ ECHEGARAY, Carlos eta ARANA MARTIJA, Jose Antonio (1989). *L.L. Bonaparte. Eskuizkribuak-Argitarapenak. Manuscritos- Publicaciones*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- IRIGARAI, Jose Anjel (1973). *Euskera eta Nafarroa*. Iruñea: Aranzadi.
- OTXANDORENA, Tomas (1997). Don José Erasun (1821-1894). *FLVXXIX*, 74, 93-8.
- PAGOLA, Rosa Miren (zuz.) (1994). *Bonaparte Ondareko Eskuizkribuak. Lapurtera* (2 liburuki). Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, Euskal Ikaskuntzen Institutua.
- et al. (1996). *Bonaparte Ondareko Eskuizkribuak: Hegoaldeko Goi-nafarrera* (4 liburuki). Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, Euskal Ikaskuntzen Institutua.
- RIEZU, Jorge (1958). El príncipe Luis Luciano Bonaparte. *Príncipe de Viana* XIX, 149-64.
- SALABURU, Pello (1980). *Baztango euskalkiaz (I) (Bruno Echenique-k egindako itzulpenak Bonaparteren eskakizunez)*. Bilbo: Deustuko Unibertsitateko Argitarazioak.
- (1996). Baztango hizkeraz hitz pare bat. In *Baztango Hiztegia*. M. Izeta, 15-22. Iruñea: Nafarroako Gobernu.
- SÁNCHEZ CARRIÓN, Jose Maria “Txepetx” (1987). *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del Euskara y teoría social de las Lenguas*. Donostia: egilearen argitalpe na.
- URQUIJO, Julio (1908-10). Cartas escritas por el príncipe L.-L. Bonaparte á algunos de sus colaboradores. *RIEVII*, 215-21, 655-9; IV, 233- 97.

#### LABURPENA

Hiru ideia nagusi ditu artikulu honek: (1) Jose Erasun, orain arte Saldiasko erretore eta euskaltzale bezala ezaguna zena, Bonaparte printzearen laguntzailea izan zen eta Zugarramurdiko dotrina egin zuen berarentzat; (2) Bonaparte printzearen hamaika nafar laguntzaile berriren izenak proposatzen dira; eta (3) Bonaparteren laguntzaileei buruzko azterketak euskararen 1850-1860 hamarkadetako egoera ezagutzeko duen garrantzia erakusten da.

#### RESUMEN

El trabajo consta de tres ideas principales: 1) José Erasun, conocido hasta ahora como párroco de Saldías y amante de la lengua vasca, fue colaborador del príncipe Bonaparte y escribió para él el catecismo de Zugarramurdi; (2) se proponen los nombres de once colaboradores nuevos de Bonaparte; y (3) se apunta la importancia del estudio sobre sus colaboradores para conocer la situación del euskera en la década 1850-1860.

#### RÉSUMÉ

Le travail se compose de trois idées principales : 1) José Erasun, connu jusqu'à présent comme le prêtre de Saldías et amoureux de la langue basque, fut le collaborateur du prince Bonaparte et écrivit la *Doctrine* de Zugarramurdi. 2) transmet la liste des onze collaborateurs navarrais de Bonaparte, et 3) on note l'importance de l'étude des collaborateurs du prince pour connaître la situation de la langue basque au cours de la décennie 1850-1860.

ABSTRACT

This article takes in three main ideas: 1) José Erasun, known up until now as the Parish Priest of Saldías and lover of the Basque language, was one of Prince Bonaparte's collaborators and wrote the *Doctrina de Zugarramurdi*. 2) The relationship between Bonaparte's eleven Navarrese collaborators. 3) The importance of the study of the Prince's collaborators in understanding the situation of the Basque Language during the decade 1850-1860.



*Ordea*

Piuisten sut, Jaungoico Aita gu-  
 cia poderosua baitan, circumscilicet  
 lumen creaturam: et a. Thauris-  
 terium sine carce gure Jaunaren  
 baitan cum concubitu izancon. Es-  
 piritu Sainduaren obre et gra-  
 cia: et artizan nigra Mariam  
 gane, judicium zueu concio Pibla-  
 an manuum aspian; izan conem  
 cificata, illa et a. pullarata, que  
 sicut infernata: singularia equi-  
 man bitucon illu artitici: igancou  
 Peruitara, et dago yoriri. Jaun-  
 goicoa Aita gucia poderosuaru  
 conico aldian: audic etori bar-  
 du illac et. vicia yuzgatera. Si-  
 milen dicit Espiritu Sainduaren  
 baitan, Gloria Anna Saindu catoli-  
 ca, Sainduen comunione, beca-  
 tuen barcomendua, araguaru  
 bita vicia vicia.

*Amen*

1. eranskina: Zugarramurdiko dotrinaren azala eta lehenengo orrialdeak (Nafarroako Artxibo Nagusia, Bonaparte fondoa, B-80 eskuizkribua)

Para dar cumplimiento a la circular referida a la estadística general del clero mandado formar por el Sr. S. D. G. en fecha de 21 de Octubre último, digo que los Sacerdotes adscritos a la Parroquia de Zugarramurdi son los siguientes.

D.<sup>o</sup> Mariano Orris, de edad de cuarenta y cuatro años, natural de Orens Dicesis de Pamplona, su carrera literaria, tres años Filosofía uno de Ecología y materias morales para habilitación de confesor, desempeña el cargo de Capellán interior con la obligación de administrar el Hospital, asistencia al confesionario, misa semanal y otros cargos anejas a dicha capellanía, lleva tres años de residencia en el pueblo y destino indicados, es capuchino exclaustrado, entre otros servicios tiene el de haber sido Parroco de Zubina durante ocho años interinamente.

D.<sup>o</sup> Francisco Manuel Barreneche de edad de cuarenta y dos años, natural de Orens Dicesis de Pamplona, su carrera literaria, tres años Filosofía uno de Ecología y dos de moral, cura Parroco, es su cargo, lleva de residencia cinco años, es también exclaustrado del convento de los Capuchinos de San Blas de la villa de Iruñea.

D.<sup>o</sup> José Erasa de edad de treinta y seis años, natural de Saldaña, Dicesis de Pamplona, su carrera literaria tres años de Filosofía uno de Ecología y dos de moral, cura Parroco, es su cargo, lleva de residencia nueve años y medio, desde ocho meses del primer año de su ordenación, de Beneficiado en la villa de Santesteban.

Pamplona donde accedimos a este mis. halli  
19 de Junio de 1857  
Don. M. Erize.

Don. M. Erize  
Don. M. Erize